


Amets eta Meşar



«Musika ixila.
Emeki-emeki dantzari bikoteak agertzen dira.
Dantza hasten da...»

Billy-ren berotasuna sentitzen dut nire gorputz osoan dabilela. Burua nire ixter gainean pausatua du. Lo dagoela, aingeru baten iduria du. Xantza badu, ametsen erreinuan da oraino; ni handik ateraia naiz eta badut astia hartara itzuli aintzin. Ez dut iratzar arazteko gogorik, nahi dut momento honen patxada oraino gahiago jastatu gehienik maite dudan pertsonarekin. Ahal dudan pollikienik ileen artean musu bat emaiten diot. Bainan hala ere begiak irekitzen ditu. Triste naiz harentzat. Ametsen erresuman egoiten ahalko zen pixka bat gehiago, eta niregatik, berriz, errealitatearen kontra arizan beharko da.

—Iratzararazi zaitut?

—Ez, amaz nindagon gogoetan.

—Triste zira?

—Ez... Maite zaitut!

Eta biak besarkatzen gira. Biak nigarrez ari gira. Ez gira triste, ez, kontent gira biak elgarrekin izaitezaz...

Hori dena aitaren falta da. Beregatik gara Billy eta biak etxetik eskapatu. Beregatik gara biak nigarrez eta sabela hutsik.

Duela dotzena bat urte hasi da dena, Euskal Herrian (zer da niretzat Euskal Herria? Amets eginarazten duen hitz majiko bat?) Puntu bat nire ganbarako munduko mapan? Bilatzen dudan ene amaren paradisua?). Nire aitamak gazteak eta ederrak ziren eta haien amodioa berri-berria. Biak familia pobre batetik heldu ziren, eta hala egoiteko eginak zirela uste dut, eta ez kontrarioa, erraiten duten bezala.

Ezkondu ziren, beraz, eta bi urteren buruan, horra ni, Patxi, begi urdin eta kasko hori, arras aitaren kontrarioa, baina dena ama! Hori aitak ez dit sekulan barkatu.

Handik hiru urtetara, ama bigarren aldikotz haurdun zela, aitak Ameriketara aberastera joatea erabaki zuen. Hastean amak ezetz erran zion, baina aitak larderiatu zuenean amore eman zuen.


Joan ginen, beraz, laurak Ameriketara, itsas-untziz (laurak diot, Billy sabelean zelako, eta untsa kondatuz lau egiten baitu). Ameriketara heltzen ginela, amak sentidu zuen haurra sortuko zela. Ni eta hura ginen bakarrik gure gelan, nire zango laburren gainean laguntzaren bila. Aurkitu nuen lehen pertsona ekarri nuen: beltza zen eta Bill deitzen zen. Nik ikusten nuen lehen beltza.

Ahantzia ninduten, ez ninduten gelatik atera. Beti orroituko naiz gertakari horretaz: ama oihuka ari zen, Bill bera baino beldurtuagoa eta izerditan. Eta bet-betan, zerbait, gorri gorria, oihuka, itsusia. Bill-en eskuetan. Amak ez du gehiago oihu egiten, irriz ari da, Bill ere. Geroztik ez dugu sekulan ikusi.

Arratsean aita ez zen sartu gure itsas untziko gelara, seguraz ere norapeit mozkortzera joana. Momentu honen goxotasunaz baliatzeko, ama eta biok ohe berean sartu ginen eta amaren besoetan niniaren izenaren hautatzen hasi. Nik Patxi nahi nuen, ni bezala, baina amak zion Patxi eta Patxi, bi anaiantzat ez zela ongi, eta berak nahiago zuela Billy, sortzen lagundu zuena bezala.

Billy nere anaia segidan bihotzera sartu zitzaidan. Ixil-ixilik, deus erran gabe. Orain hamar urte ditut, berak zazpi, eta amodio hori ttipitu ordeztu beti haundituz doa.

Orain, atzo Billy goitika harrarazi zuen zakar untzi usain okaztagarria ez dugu gehiago sentitzen. Usatu gara seguraz ere, ohitu. Xutitzen gara. Zer bide hartu? Eskuinekoa edo ezkerrekoa?



—Zoin zangorekin botatzen duzu baloia Billy?

—Hunekin.

Ezkerra erakusten dit.

—Bon, beraz, ezkerreko bidea hartuko dugu.

Billy betidanik amaren maitatuena izan da, bere sorteguneko orroitzapen goxoak gogora ekartzen dizkiolako seguraz ere.

Hogeitalau orenen buruan zuen bakarrik jaikin aitak Billy sortu zela: Amerikara heltzen ginela, ohartu zen amak beti besoetan mihise bat atxikitzen zuela, eta sabela ez zuela lehen bezain lodia, baina ez zen urrunago joan bere pentsamentuetan, arnoak dena nahasten zion buru barnean.

Lurreratu ginenean, amarengana hurbildu zen, hala ere, eta begirada bat eman zuen mihise azpikoari. Hastean hor berean gelditu zen, ezin mugituz. Harriduratik atera zelarik, amari besoetatik haurra kendu zion. Lurrean utzi eta ama eta ene jotzen hasi zen, erotua, haserre. Gure kontra bezanbat bere buruaren aurka, naski. Geroztik gure jotzeko usan hori ez du galdu.

—Gose zira Billy?

—Bai, min dut sabelean.

—Zaude denda bat ikusiko dugunean, zerbait ebatsiko dugu.

Zein urrun iduritzen zaidan azken aldikotz jan dugun bazkari hura. Atzo zen baina zenbat gauza pasatu diren geroztik!

Sukaldeko mahai laukiaren inguruan ginen laurak. Amak, berriki, mahainera berak eginkako «Hamburger» batzuk ekarriak zituen eta emeki-emeki jaten ari ginen. «Hamburger» hori haragi xerra bat bakarrik zen, bi ogiren artean, baina telebistan ikusi Mac Donald's bezalako gauzak jaten genituela iduritzen zitzaigun.

Gure apartamendua lau gelatan zatitzen zen: sukalde ttipi bat, jangela eta egongela bezala erabiltzen genuena; bainu gela; aitamen ganbara; eta Billy eta nire ganbara. Gure ganbara hain ttipia zen non ohe bat eta kadera bat bakarrik sartzten bait ziren. Zazpi urtez Billy eta nik hor lo egin genuen elgarri koropilaturik. Ganbarako murrak gure haur marrazkie-


taz beteak ziren. Billy-ren marrazkiek beti elefanteak edo New York hiria itxuratzen zuten. Marrazki horietaz aparte, munduko mapa bat zegoen gure ohearen gainean, aitak arrats batez ekarri ziguna.

Eguerdi horretan, beraz, jaten ari ginen eta aitak egunkaria irakurtzen zuen (Aitak, beti, guk jaten genuelarik egunkaria irakurtzen zuen eta bukatua genuelarik gure tokia hartu eta jaten zuen).

Bukatua genuen eta telebistari so ginen (Eguneko beste denbora guztian elektrizitatea mozten ziguten). Ama baxeraren egiten hasia zen. Aitak, berriz, egunkaria hetsi berria zuen jaten hasteko. Eta bat-batean, oihu bat entzun genuen. Aita amaren kontra ari. Honela zioen:

—Aski dut familia honetan bizitzeaz! Emaztearen janaria ezin jana da; haurrak ezin biziak eta horretarik ateratzen dudan emaitza bakarra nire lanbidea galtzen dudala da!

Lanetik kanporatua izan zen, beti mozkorra edo erdilo zelakoan.



Hitz horiek erranik, kadera hartu eta telebistaren gainera bota zuen. Telebista zapartatu zen leherketa ozen batean.

Ama oihuka hasten baitzen, aita bere indar guzietz ukabilka lotu zitzaion. Ama bizkar gainera zabal-zabala erori zen, ezin mugituz. Sudurretik eta ahotik odola zeriola arnasa mozturik. Aita, ikustean ez zuela gehiago deus egiten ahal bere emaztearen kontra, guregana itzuli zen, bakotxari zarta pare bat eta ukabilkada on bat emanik; aintzineko ostatura joan zitzaigun mozkortzera.

Ama, oraino beste mundu batetan zena, Billy eta nik herrestan bere oheraino ereman genuen eta bere bisaieko odolaren kentzen hasi ginen oihal zati busti batzuekin bera mintzatzeko zelarik. Ez nintzen sekulan amari hainbeste hurbil sentidu:

—New York-era etorri aintzin, Euskal Herrian bizi ginen, han ez da hemen bezala dena etxe, auto eta kale; ez. Han denetan pentzeak badira, ardiak, loreak, zuhaitzak han hemenka itzalean pausatzeko ardi guztiak lasterka bildu eta. Oihanak ere badira. Oihan eder eta zaharrrak. Etengabeak. Oroitzen zira Patxi?

—Ez...

—Oihan horietan egun osoak pasatzen genituen aterabidea berriz xerkatzen. Bidean marrubi basak biltzen genituen. Kiloka eta kiloka. Sabela beterik eta nekaturik sartzen ginen baserrira. Aiton-amonak itxoiten gintuzten eta beren haurtzaroko ixtorioak kondatzen zizkiguten. Ah! Zer denbora ederrak ziren haiek! Gero ezkondu naiz eta honera etorri gira...

Dena ixil-ixilik zen. Amaren begi beltz ederretatik lerratzen ziren kristalezko malkoen auhena ere entzuten ahal genuen. Orduan nintzen ohartu ama zoin triste zen Euskal Herria utzirik.

Eta amak azken begirada batez ferekatzen gintuelarik, ezagutzen ez genuen irri goxo bat agertzen zela bere ezpainetan, senditu nuen bi-ziak uzten zuela emeki-emeki...

Hor harriturik egon ginen momento bat. Hamar minuta? Hogeia? Oren bat? Ez dakit, baina dakidana denbora hori oso luzea iruditu zitzaidala da. Esku ttipi goxo bat sentidu nuen enean sartzen.

—Goazen... Aita itzultzen baldin bada gauza bera eginen digu.

Eta uste baino lasterrago kalean ginen.

—Badakit, joanen gira Euskal Herrira. Han xerkatuko ditugu aiton-amonak eta haiekin biziko gira ama haiekin bizi izan den bezala.

Joan ginen, beraz... bi anaiak, eskuz esku, Euskal Herriaren bila New York-eko kaleetan zehar...

—Zer ordu da Billy?

—Biak eta laurdenak.

Amak digu ikasi ordua irakurtzen duela aste bat edo bi. Ez du gu ikastolan ikasi. Ez gara sekulan joan, sobera kario aterako zelako materiala guztia erostekoan.

—Abantxu biak! Saltegiak ixtantean idekiko dira. Jar gaiten hemen.

—Ari gira jendeen lanbideen pentsatzen?

—Nahi baduzu.

Joko ximplea da: gure aitzinean pasatzen diren pertsonen lanbidea asmatu behar da.

—Begira Patxi, hango emaztea segur naiz haragi saltzailea dela.

—Bai segur da, eskuak eta jantziak odolez beteak ditu. Ah! Saltegi bat ideki da. Prest zira? Bon, usaian bezala eginen duzu, saltzailea zurekin atxikitzen duzu, eta nik artean zerbait ebasten dut. Ados?

—Bai.

—Bon. Ongi. Zoaz. Eta berriz etxe haren giblean elgarretaritzen gira.

Saltegi berinetatik ikusten ahal dut Billy. Han hemenka gauza batzu hartzen ditu. Orain saltzailearengana joaiten da. Mintzatzeko hasten dira. Iduriz Billy-k dirua galdua duela erraiten dio. Eni da jokatzeko orain. Barnera sartzen naiz.

Billy eta saltzailea beheiti so dira. Dirua lurrean xerkatzen dute. Fite, fite eskuratzen zaidan lehen gauza hartzen dut, bixkotxa paketa ttipi bat. Beste bat hartzen dut eta saltegitik ateratzen naiz poliki-poliki, zango puntan gainean.

—He! Zu! Ebasle!

Itzultzen naiz, saltzailea da, nire gibeletik lasterka ari da. Ni ere lasterka hasten naiz, baina hola ere hurbiltzen zait.

Zer da? Ximixta hori bat ikusi dut nire begien aurrean pasatzen. Orain ezin pentsatuzgo min batek gorputz guzia xehatzen dit. Lurrean naiz. Begiak idekitzen ditut. Ainitz jende neri so dira. Billy bakarrik ezagutzen dut, nigarrez ari da. Beste gizon bat ere nigarrez ari da. Hori dio:

—Ez nuen ikusia, eta ikusi dudalarik berantegi zen. Autoarekin uzkaile dut.

Abots hori ezagutzen dut! Bill da! Billy sortarazi zuena! Nahi diot erran ezagutu dudala, baina ezin dut, hitzak zintzurtean kokatzen zaizkit.

Bill-ek nire anaia besoetan atxikitzen du zazpi urte lehenago bezala. Nere besoa luzatzen dut eta Billy-ren eskua hunkitzen. Niregana hurbiltzen da, orain aurpegi osoa malkoz betea

du. Ahal dudan bezala bi eskuen artean bere burua hartzen dut eta nire bularraren gainean pausatzen.

—Entzun Billy...

—Bai.

—Entzun... Joan Euskal Herrira. Joan gizon beltz horrekin... Amaren lagun bat da.

—Joanen naiz, baina etor gurekin, joanen gira hirurak...!

—Ezin dut... Hemen egon behar naiz. Ezin naiz jin... Ezin dut... Ezin dut...

—Ez hil Patxi...! Egon nirekin!

—Ezin dut, ez...

«Musika ixila itzali da dantzari bikoteak desegiten eta erortzen dira. dantzaren amaiera...» ■

